

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## “Gelagri Ibérica SL”-ren Milagroko enpresa-proiektua foru-intereseko inbertsioztat jo dute

*Barazkien tratamenduaz arduratzen den enpresa honek zuzeneko 30 lanpostu sortzea aurreikusten du*

Asteazkena, 2018.eko urriak 3

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran “Gelagri Ibérica SL” enpresak sustatu duen proiektua foru-intereseko inbertsioztat jotzea erabaki du. Proiektuaren bidez Milagron dituen barazkien tratamendurako instalazioak zabaltzea du xede, eta zuzeneko 30 lanpostu sortzea aurreikusten du.

“Triskalia”-ren —Bretainiako nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien kooperatiba— enpresakidea da. Kooperatibak negozio-ildoak ditu arlo hauetan: nekazaritza, abeltzaintza, transformazioa eta banaketa. “Gelagri Ibérica”-k bi fabrika ditu Frantzian eta beste bi Espainian (Milagron eta Santaellan, Kordoban). Hain zuzen, Milagroko plantan 65.000 tona barazki transformatzen dira, hainbat motakoak: lekak, tomateak, ilarrak, kuiak, batatak, patatak orburuak, etab.

19,4 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusi da. Diru hori nagusiki lursail berriak erosteko, instalazio elektrikoak eta hozteko instalazioak zabaltzeko eta ontziratze-zona zabaltzeko erabiliko da.

Proiektu honen bidez, instalazioek gaur egun duten produkzio-ahalmena handiagotu nahi da, % 30an ontziratzeari dagokionez eta % 125an biltegitratzeari dagokionez. Horrekin batera energia-eraginkortasuna eta baliabideen erabilera hobetu nahi dira, eta komertzializaziori dagokionez biltegitratze-kostuak murriztu. Gainera, proiektu hau S3 Espezializazio Adimendunaren Estrategian oinarritu da elikadura-katea egituratzean, eta elikadura osasungarriaren, energia fosilen kontsumo-murrizketaren eta enpresaren batez besteko tamaina handitzearen alde apustu egiten du.

Gogoratu behar da Nafarroako ekonomia-, gizarte- edo lurralde-garapenerako bereziki garrantzitsuak diren proiektuak foru-intereseko inbertsioztat har ditzakeela Gobernuak. Nafarroako herri-administrazio guztiekin egin beharreko izapideetan ekimen horiek lehentasunezko eta premiazko tratamendua izaten dute, eta, adibidez, jardueraren ezarpen, hirigintza-plangintza eta egikaritze-, irekiera- edo funtzionamendu-lizentziatarako aurreikusitako ohiko izapideak egiteko epea erdira murrizten da.